



MEMORIA 2020



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

MEMORIA 2020

Aurkezpena 3

1. Azterlan kuantitatiboak 4

- KULTURA-ALORREKO FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOAREN ESTATISTIKA (2018) 4
- ARTEEI, KULTURA-INDUSTRIEI ETA SORMEN-INDUSTRIEI BURUZKO ESTATISTIKA (2019) 4
- ENPRESA-KONFIANTZAREN OHITUREN ETA ADIERAZLEEN LUZETARAKO PANELAK 5
- ARTXIBOEN ESTATISTIKA - 2019 5
- KULTURA- ETA SORMEN-SEKTOREETAKO ENPRESAK, ENPLEGUAK ETA LAN-MERKATUA (2019) 5
- BEHATOKIAREN ESTATISTIKA-ESPARRUA BERRIKUSTEA 5
- URTEKO ADIERAZLEEN LABURPENA 5
- BESTELAKO ESTATISTIKAK 5

2. Krisiaren Behatokia 6

3. Azterlan kualitatiboak 7

- PARTE-HARTZE KULTURALA EUSKAL HERRIAN: MODUAK, KAUSAK ETA INPAKTUAK 7
- PARTE-HARTZE DIGITALA: DATUAK, GOGOETAK ETA JOERAK TESTUINGURUAN 7
- KALEKO ARTEEN INPAKTU SOZIALA (ARTEKALEREKIN LANKIDETZAN) 8
- SORMEN-SEKTOREETAKO GASTU PUBLIKOARI BURUZKO AZTERLANA 8

4. Beste jarduera batzuk 9

- KULTURAREN ARLOKO PROFESIONALENTZAKO AHOLKULARITZA-ZERBITZUA 9
- INTERREGEUROPEK ANTOLATUTAKO RETOOLING THE CULTURAL AND CREATIVE SECTOR AFTER THE PANDEMIA IZENeko FOROAN PARTE HARTZEA 9
- WEB-ATARIA EGUNERATZEA 9
- SARE SOZIALAK 9
- TXOSTENAK EGITEA, AHOLKULARITZA EMATEA, KONTSULTAK EBAZTEA ... 9

5. Behatokiaren lana zifratan 10

AURKEZPENA

Urteko memoria egitearen helburua urtean zehar egindakoa biltzea izaten da, egindako lanen emaitzak jasota uzteko, kontuak emateko eta emaitza horiek zabaltzeko. Urtebetean gauza asko gerta daitezke, eta aurtengo urtea bereziki konplexua izan denez, inoiz baino gehiago komeni da jardueraren laburpen txiki bat egitea urtearen amaieran. Horrela, Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB) abian jarri zenetik egin duen bideari jarraituz, honako memoria hau aurkezten dugu.

2020. urtea ez da izan nolana hiko. Pandemia bat-batean agertu izanaren ondoriozko egoerak den-deno eragin digu, salbuespenik gabe: etxeko eremutik hasi eta eguneroko bizitza egituratzen duten jardueretaraino (lana, aisialdia, familia-betebeharrak, atsedena). Alde horretatik, ezohizko urtea izan da. Behatokiak gertakari honen berri eman behar du, larritasun handikoa izan baita. Ikerkuntzan jarduten duen erakunde batek urte honetan gertatutakoa esperimendu sozial, politiko, ekonomiko, teknologiko eta kulturalizat har dezake, eta beraz, baita ohiz kanpoko azterketa-eremutzat ere. Eta horretan jardun dugu.

Behatokiaren Jarduketa Planaren aurkezpenean esan bezala, 2020rako aurreikusitako programak gertaeren ondoriozko eraginak jasan ditu, eta, beraz, egoeraren arabera egokitu behar izan da. Euskal errealitate kulturala aztertzeke eta ikertzeke lana ez da inola ere eten, baina ohiko ekoizpenaren erritmoak aldaketak izan ditu, hori bai. Kontuan izan behar da Behatokia ez dela errealitatek isolatuta lan egiten duen erakunde bat; aitzitik, kultura-eragileen multzoak ematen dion informazioaz elikatzen da. Eta, jakina, pandemiak eragin handia izan du sektorearen jardueran. Horren ondorioz, hainbat tresna jarri behar izan dira martxan, kultura-sektore guztiek izan duten eragina neurtzeko; orientabideak eman behar izan dira, egoera delikatu hau arintzen eta horri aurre egiten laguntzeko; azterketa batzuk atzeratu behar izan dira, lehentasun berriak sortu baitira; eta kultura-eragileek informazioa emateko zer-nolako zailtasunak dituzten ulertu behar izan da, haien egoera kontuan hartuta.

Alde horretatik, Behatokiaren helburua, lehenik eta behin, kulturaren sektorea bizitzen ari den errealitatea jakinaraztea izan da, sektore hori baita pandemiaren kaltetu nagusietako bat. Horretarako, krisiaren Behatokia abian jartzeaz gain (hau da, krisialdiaren eraginari buruzko informazioa eta hausnarketa helarazteko diseinatutako larrialdi-dispositiboa), ohiko estatistika-eragiketak diseinatu dira berriz ere, datozen urteetan jarraipena egin ahal izateko.

Normalean, eskema kuantitatibo-kualitatiboari jarraituz antolatzen da urteko memoria. Eskema hori Behatokiaren informazioa, analisia eta ezagutza sortzeko lana antolatzeko erabiltzen da. Oraingo honetan, aldiz, aipatu krisiaren Behatokia gehitu zaio, bai eta nolabaiteko ikuspegi kronologikoa ere. Izan ere, bat-batean, crack bat gertatu zen, eta horrek dena aldatu zuen: lehenik ulertu egin behar izan zen, eta, gero, azkar erreakzionatu behar izan zen, eta lan egiteko modua zein aurreikusitako edukiak berriz ere planteatu behar izan ziren. Hona hemen 2020ko emaitza, pandemia bat-batean agertu zen urtekoa.

1. AZTERLAN KUANTITATIBOAK

Estatistikek kadentzia finkoa izaten dute: alde batetik, Behatokiaren bi eragiketa nagusiak bi urtez behin egiten dira (arteak, kultura-industriak eta sormen-industriak urte bakoitietan; eta finantzaketa eta gastu publikoa urte bakoitietan); eta bestetik, luzetarako bi panelak (parte-hartze kulturala eta enpresen konfiantza) urtero egiten dira. Horrek esan nahi du aldi berean egin behar direla informazioa biltzeko atazak diseinatzeko eta martxan jartzeko lanak, batetik, eta hedapen-produktuak aztertzeke eta lantzeko lanak, bestetik. Aurten, honako lan hauek egin dira:

KULTURA-ALORREKO FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOAREN ESTADISTIKA (2018)

Honako produktu hauek argitaratu dira:

- **Emaitzen txostena.** Txostena berriz diseinatu da, eta adierazleen xehetasun maila bera mantendu da, irakurketa atsegina izan dadin. 2008-2018 aldiko bilakaera-datuak biltzen ditu, baita kultura-alorreko likidatutako gastuari, gastu bateratuari eta enplegu publikoari buruzko adierazleak ere.
- **Emaitzen sintesia.** Laburpen honen bidez, estatistikaren emaitza nagusien panoramika azkarra dago eskuragarri, nahi duenarentzat.
- **Oinarrizko adierazleak.** Estatistikatik eratorritako adierazleen multzoa. Emaitzen txosteneko informazioa osatzen dute, eta EAEko kultura-bizitasunaren berri ematen dute, honako hauek kontuan hartuta: gastu publikoa, gastuaren dibertsifikazio eta deszentralizazio maila eta egitura, kultura-arloko diru-sarrerak eta kultura-arloko enplegu publikoa, bai eta genero-ikuspegia ere. Ingelesez eta frantsesez argitaratzen dira.

ARTEEI, KULTURA-INDUSTRIEI ETA SORMEN-INDUSTRIEI BURUZKO ESTADISTIKA (2019)

Hasteko, estatistika bikoitz honen landa-lana egin da. Lanak ardatz bi izan ditu: alde batetik, pandemiak sortutako egoerak azterlanean parte hartzen duten enpresen eta eragileen artean izan duen eragina aztertu da (aurreko edizioan, mila eragile inguru izan ziren, gehienbat kultura-eragileak, eta ez hainbeste eragile sortzaile); eta, bestetik —eta nahiz eta oraindik 2019ko datuak biltzen ari diren—, pandemiak izan duen eraginari buruzko galderen modulu gehigarri bat sartu da galdetegietan.

Helburua zera da, 2021ean, errolda zabal hau osatzen duten kultura- eta sormen-sektoreen multzoan pandemiak izan duen eraginaren gaineko informazio-adierazleak izatea. Kontuan izan behar da kultura- eta sormen-sektoreen multzoak 2017an 762 milioi euroko diru-sarrerak izan zituela, eta 6.834 langile izan zituela.



ENPRESA-KONFIANTZAREN OHITUREN ETA ADIERAZLEEN LUZETARAKO PANELAK

Bi panelen galdetegiak diseinatu dira berriz ere, pandemiak izan duen eraginari buruzko ikuspegia tresna horietan ere txertatzeko.

Berrikuntza nagusiak EKA panelari eragiten dio. Izan ere, panel hori bikoiztu egin da, sormen-industriak gehitu baitira, eta ondorioz, azterlanean 70 eragile gehitu baitira. Hasieran, EKA panela 2020ko irailean egitea aurreikusten zen, baina kontuan izanik zer-nolako egoera ari diren bizitzen kultura- eta sormen-enpresak eta -eragileak, atzeratzea komeni zela iritzi zen, eta orain, betearazpen-fasean dago, azterlanarekiko zuhurtzia- eta bideragarritasun-arrazoia direla-eta.

Emaitzak honako esteka hauetan kontsultatu ahal izango dira:

- **Kultura-ohituren panela**
- **Enpresa-konfiantzaren adierazleen panela**

ARTXIBOEN ESTADISTIKA - 2019

Kontuan izanik jarduera oro eten zen bi hilabeteetan landa-lana ere eten egin behar izan zela (martxoaren erdialdetik maiatzaren erdialdera), artxiboen estatistika urteko bigarren seihilekoan amaitu zen. Emaitzak 2021eko lehenengo hiruhilekoan argitaratuko dira.

- **Fitxategiak**

KULTURA- ETA SORMEN-SEKTOREETAKO ENPRESAK, ENPLEGUAK ETA LAN-MERKATUA (2019)

Azterlan hau bigarren mailako informazio-iturrietatik lortutako datuen bidez egin da, esaterako, JEGID (Eustat), Kultura Ministerioa eta Lanbideko datuen bidez. Kultura- eta sormen-jarduera ekonomikoei lotutako enpresa eta enpleguei buruzko berariazko ustiapenak eskatu ziren, bai eta kultura- eta sormen-lanbideei lotutako kontratu eta enplegu-eskaerei buruzkoak ere. Horrekin guztiarekin, kultura- eta sormen-sektoreek EAEko enpresa-multzoaren barruan duten garrantzia dimentsionatzea lortu da.

- **Enpresak eta enpleguak**

BEHATOKIAREN ESTADISTIKA-ESPARRUA BERRIKUSTEA

Birformulazio-prozesuan dago, uneko premietara egokitzeko eta kultura-estatistikaren arloan munduko erreferentziarako erakundeetan indarrean dauden joerak txertatzeko. 2021-2025 aldirako planteatu da.

URTEKO ADIERAZLEEN LABURPENA

Urteko gauzarik garrantzitsuenen laburpen estatistikoa da. Urtean argitaratutako eragiketen datuak oinarri hartuta, eta Behatokiaren aurkezpen modura, txosten labur eta grafiko bat egin da, Behatokiak egin duen estatistika-lanaren ikuspegi orokorra izan nahi duenarentzat. Lau hizkuntzatan argitaratzen da (eu-es-fr-en).

BESTELAKO ESTADISTIKAK

Behatokiaren webgunean, halaber, EAEko argitalpenen errealitatea ezagutzeko egin diren azterlanak argitaratu dira, zeinak Euskadiko Editoreen Gremioarekin koordinatuta egin baitira.

- **Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenei buruzko XXV. txostena - Barne Merkataritza (2019)**
- **Euskarazko argitalpenei buruzko XV. txostena (2019)**

2. KRISIAREN BEHATOKIA

Martxoan, alarma-egoeraren deklarazioak eta funtsezkoa ez den jardueraren itxierak eragindako egoeraren ondorioz, kultura-sektoreek ekimen ugari bultzatu zituzten itxierak izan zuen eragina ezagutzeko eta eragin hori arintzeko neurriak eskatzeko. Behatokiak gauza bera egin zuen martxoaren amaieran, eta pandemiak kultura-sektoreetan izan duen eraginaren jarraipena egiteko mekanismo bat jarri zuen martxan: krisiaren Behatokia. Behatoki hori helburu hauekin sortu zen: tresna azkar eta dinamiko bat izatea, kultura-sektoreen multzoa jasaten ari zen egoera atzeman ahal izateko, eta egoera hori arintzen lagunduko zuten neurriak proposatzea; bai eta kultura-sektoreen jarduera berraktibatzea ere, nahitaezko geldialdi-egoera arintzen joan ahala.

Online inkesta bat diseinatu zen, arlo guztien artean komuna den gutxieneko informazioa eskuratzeko, eta informazio hori sektoreko elkarteekin egiaztatu zen. Estrategia hori bi arrazoirengatik erabili zen: uneko premia-egoerari erantzun beharra eta datu partekatu eta globalak izateko beharra.

Maiatzean datu-bilketaren lehen jasoaldiaren emaitzak argitaratu ziren; jasoaldi hori 2020ko apirilaren 9tik 26ra bitartean ireki zen, eta 234 eragilek parte hartu zuten. Txosten horri esker, jarduera-uzteak sektorean izan zuen inpaktuaren argazki bat lortu ahal izan zen, bai eta lehenengo bi hilabeteetan abian jarri ziren neurrien eraginari buruzko hasierako ikuspegi bat ere.

Aldi berean, pandemiaren aurrean sortu beharreko jokaleku eta estrategiei buruzko txosten bat ere egin zen. Txosten horretan, sektoreari eragin dioten aldagai nabarmenen azterketa zehatza egin zen, eta une hartan imajina zitezkeen hainbat jokalekuren aurrean hartu ahal ziren estrategiak zehaztu ziren.

Uztailan, alarma-egoera indargabetu eta aste gutxira, bigarren jasoaldiaren datu-bilketa egin zen. Azterlan horri esker, sektorearen gogo-aldarteak testatu, jardueran, diru-sarreretan eta enpleguan izandako eraginari lotutako adierazleen bilakaera ezagutu, eta jarraitzen ari ziren estrategiak ezagutu ahal izan ziren. Kontuan izan behar da Covid-19ak eragindako krisiak bi aldiz eragiten diola kulturari: alde batetik, sektorearen iraunkortasunari eragiten dio, enpresa-egitura hauskorra eta egiturazko prekarietatea izaten baitu; eta, bestetik, eskubide kulturalak gauzatzeari eragiten dio.

Urte amaieran hirugarren informazio-jasoaldi bat egitea zegoen aurreikusita; baina ikusirik pandemiak udazkenean bilakaera negatiboa izan zuela, hau da, tresna hau diseinatu zenean espero zitekeena baino okerragoa zela egoera, eta oraindik ere ziurgabetasun handia dagoela, jasoaldi hori 2021eko hasierara arte atzeratzea erabaki zen.

Hemen kontsulta daitezke txostenak:

- **Lehen jasoaldiko emaitzen txostena.**
- **Bigarren jasoaldiko emaitzen txostena.**

3. AZTERLAN KUALITATIBOAK

Politika kulturalen agenda markatzen duten gaietan sakontzeko egin diren azterlanak dira. Gaien kataloga konfiguratzeko, planteamendu integral bat hartzen da, zeinak hartzen baititu bai alderdi sektoriala, bai bokazio publikorako politikak, behar kolektiboei eta interes orokorrari erantzuteko bideratzen direnak.

2020an, ohiturei eta parte-hartze kulturalari lotutako bi azterlan egin dira. Gogoratu behar da Behatokiak Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkestaren (2018) informazioa duela. Izan ere, inkesta horren datu-bankuari esker, hainbat azterlan egin daitezke, parte-hartze modu bakoitzeko maiztasunen deskribapenez harago (alegia, parte-hartze presentziala, digitala, eta aktiboa).

PARTE-HARTZE KULTURALA EUSKAL HERRIAN: MODUAK, KAUSAK ETA INPAKTUAK

Azterlanak ikuspegi propioa sortu du, bai parte-hartze kulturalaren arrazoiak ezagutzeko (praktika aktiboak eta digitalak barne), bai eta bizitzarekiko gogobetetzearekin, gizarte-kohesioarekin eta gizarte-tolerantziarekin lotutako eraginak ezagutzeko ere.

Emaitzen arabera, parte hartzeko modu desberdinak ere kausa desberdinen ondorio dira. Izan ere, kausa horiek, gehienetan, ekonomia- eta hezkuntza-faktoreekin lotzen diren arren, azterlanak erakusten duenaren arabera, faktore horiek parte-hartze hartzaileko dira bereziki funtsezkoak, baina ez gainerako moduetarako (edo, behintzat, ez espero den moduan). Jakina, aldagai psikologikoak ere kontuan izan behar dira, bai eta adina, sexua, jatorria edo bizilekua bezalako faktoreek duten pisua ere. Gainera, ikusi denaren arabera, lotura nabarmena dago parte-hartze kulturalako moduen eta bizitzarekiko gogobetetzea hobetzearen artean; izan ere, lotura sozialak sortzeko aukera handiagoak eta kultura-aniztasunarekiko tolerantzia maila handiagoa izaten dira. Emaitzak bereziki interesgarriak dira kultura-politikez hausnartzeko, parte-hartze kulturalaren oztopoei eta ekitateari dagokionez. Izan ere, parte-hartze kulturalaren fenomenoak hobeto ulertzen laguntzen dute, eta horren ikerketa hobetzeko bidea zein den adierazten dute.

PARTE-HARTZE DIGITALA: DATUAK, GOGOETAK ETA JOERAK TESTUINGURUAN

Kultura-ohitura digitalen gaia jasota zegoen dagoeneko Kulturaren Euskal Behatokiaren 2020rako hasierako Jarduketa Planean. Beraz, azterlan hau edukien egokitzapen-adibide bat izan da, Covid-19aren ondorioz eduki horiek aldatu egin behar izan baitira.

Orokorrean irizten denaren arabera, Covid-19ak digitalizazio-dinamikak sakontzea ekarri du, hau da, bizkortzaile bat izan da; horregatik, planteatutako txostena bereziki garrantzitsua da, eta pandemiak ezarritako gidoia jarraitu behar izan du: Zer-nolakoa izan daiteke inpaktu digitala Covid-19aren ondoren? Zaila da egindako galderari ziurtasunez erantzutea, baina funtsezko alderdiak eta arrazoizko aurreikuspenak argitu daitezke, hori bai. Horretarako, kultura-ohitura digitalak gaur egun nola garatu diren eta garatzen ari diren berriaz aztertu da.

KALEKO ARTEEN INPAKTU SOZIALA (ARTEKALEREKIN LANKIDETZAN)

EAEko kaleko arteen sektoreko datuak biltzen ditu Artekalek bi urtean behin. Egin ohi duten azterketa kuantitatiboa bideratzeko eta, bereziki, kaleko arteen inpaktu sozialean sakonduko duen analisi kualitatiboa egiteko, Artekale elkarteak Kulturaren Euskal Behatokiarekin jarri zen harremanetan.

Martxoan egindako inkestan bildutako datuak aztertzeaz gain, azterlan kualitatibo bat egin zen, sakoneko eta taldeko elkarrizketen bidez, non konpainiek, banatzaileek eta programatzaileek parte hartu zuten. Azterlanaren emaitzak 2021ean zabalduko dira.

SORMEN-SEKTOREETAKO GASTU PUBLIKOARI BURUZKO AZTERLANA

Azterketa estatistikoa landa-lana abiarazi aurretik planteatu daitezkeen zalantza guztiak argitzeko egin zen.

Sormen-sektoreak finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistikan sartzeko, aldeztu aurretik, balizko informazio-iturri buri buruzko azterketa bat egin behar izan zen, bai eta informazio-iturri horien kuantifikazioari eta identifikazioari buruzko azterketa bat ere, eta era berean, estatistikan sartu nahi izan dena eta sartu nahi izan ez dena mugatu behar izan da; hau da, definizioak eta orientabideak ezarri behar izan dira, informazioa errazago biltzeko eta ondoren aztertzeko.

4. BESTE JARDUERA BATZUK

KULTURAREN ARLOKO PROFESIONALENTZAKO AHOLKULARITZA-ZERBITZUA

Aholkularitza-zerbitzuaren koordinazioa eta jarraipena COVID-19ak sortutako krisiaren testuinguruan.

INTERREGEUROPEK ANTOLATUTAKO RETOOLING THE CULTURAL AND CREATIVE SECTOR AFTER THE PANDEMIA IZENeko FOROAN PARTE HARTZEA

Azaroaren 17an, Behatokiak online eztabaida batean parte hartu zuen, non pandemiaren ondoren sektorearen ekonomia suspertzeko politikei buruz hitz egin zen. Eztabaida horretan, krisialdian laguntzeko Europako programak ezagutarazi ziren eta eskualde mailako esperientziak jaso ziren. Behatokiak krisiaren Behatokiaren proiektua aurkeztu zuen.

→ **Krisiaren Behatokia**

WEB-ATARIA EGUNERATZEA

Web-ataria eguneratzeko proiektuan aurrera egin da, Behatokiaren informazioa eta jarduketak eskuratzea errazteko.

SARE SOZIALAK

Kontu bat ireki da Twitter-en, Behatokiaren lan-eremuaren intereseko eduki propioak zein kanpokoak zabaltzeko.

→ **<https://twitter.com/kulturbehatokia>**

TXOSTENAK EGITEA, AHOLKULARITZA EMATEA, KONTSULTAK EBAZTEA ...

Bai barnekoak (Kultura Sailburuordetzarako), bai beste administrazio, elkarte, eragile partikular eta abarren kanpo-eskaerak.

5. BEHATOKIAREN LANA ZIFRATAN

Kulturaren sustapen-arloko estatistika-eragiketen urteko kopurua

2020an, informazioa sortzeko lan egiten jarraitu zen, ohi bezala, eta horrek egonkortasuna eman zien sail estatistikoei, perspektiba, trinkotasuna eta alderagarritasuna emanez. Estatistika-arloa honako estatistika-lan hauen arabera egin da:

- “Kultura-alorreko finantzaketa eta gastu publikoaren 2018ko estatistika”: seigarren edizioa aztertu, interpretatu eta argitaratu da.
- “Arte eta kultura- eta sormen-industrien 2019ko estatistika. Zazpigarren eta bigarren edizioetako landa-lana egin da, hurrenez hurren.

Kulturaren sustapen-arloko ikerketa eta azterlanen urteko kopurua

- Luzetarako panela: beste jasoaldi bat egin da, seigarrena, “Kultura Ohituren eta Kontsumoaren panela”, 204 panel-partaidez osatua. Dagozkion dokumentuak bideratu dira: Ohituren panelaren buletina eta datuen analisiaren txostena.
- EUSTATEk eta LANBIDEk Euskadiko kultura-enpresei eta -kontratuei buruz 2017, 2018 eta 2019an emandako datuak ustiatu dira.
- Ikerketa kualitatiboak: “Karrera artistikoetan profesionalizatzea”, “Kultura-arloko artisten eta profesionalen etorkizuneko aukerak” eta “Parte-hartze kulturala Euskal Herrian”.

KSien (Kultura eta Sormen Industrien) esparruan urtean egindako estatistika-eragiketen, ikerketen eta azterlanen kopurua

- “Sormen Industriei buruzko 2019ko estatistika”. 2020an, estatistikaren bigarren edizioaren landa-lana egin da.

Ondarearen esparruan urtean egindako estatistika-eragiketen, ikerketen eta azterlanen kopurua

- “Kultura-alorreko finantzaketa eta gastu publikoaren 2018ko estatistika”. 2020an, estatistika horren seigarren edizioaren landa-lanean eskuratutako datuak ustiatu eta argitaratu dira.
- “EAEko 2018ko Artxiboak” izeneko estatistikaren landa-lana egin da.



Adierazleen sisteman eguneratutako adierazleen urteko kopurua

- 2020an, guztira, 363 adierazle eguneratu dira..
- Genero-jarraipenaren adierazle-kopurua.
_2020an, guztira, 103 genero-adierazle eguneratu dira.
- Hizkuntza-politiken jarraipena egiteko adierazleen kopurua.
_2020an, guztira, hizkuntza-politiken 148 adierazle eguneratu dira.
- Behatokiko estatistika-emaitzak jasotzen dituzten pertsonen urteko kopurua.
_1.200 eragile.

Jardunaldien eta lan-topaketen urteko kopurua.

- Jarraipeneko eta koordinazioko 13 bilera.

Genero-ikuspegia berariaz txertatuta duten proiektuen urteko kopurua.

- 2020an, zirkuaren sektoreko gizonen eta emakumeen egoerari buruzko txostena landu zen.



MEMORIA 2020



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA